



MENDAROKO
Udal Aldizkaria

2026ko APIRILA #04

AZPILGOETAKO AUTOBUS GELTOKIA

Lanak segurtasuna
bermatzeko

**OBRAS PARA HACER
MÁS SEGURA**

La parada del autobus en Azpilgoeta



Aurkibidea

- 1.- Azala
- 2.- Alkatearen agurra
- 3.- Azpilgoetako autobus geltokiaren segurtasuna hobetzeko urrats erabakigarria
- 4.- Etxebizitza-bulego ibiltaria izango da Mendaron hileko azken ostegunetan
- 5.- Los presupuestos de 2026 ponen el acento en las inversiones estratégicas
- 6.- Santa Anako trenbide-pasaguneari soinu eta argi bidezko sistema automatikoa ezarriko zaio
- 7.- Hezkuntza berritzailea: eskola baratzea eta filosofia umeentzat Hezkuntza Foroan
- 8.- Altzola eta Mendaro arteko bidegorri zatia diseinatzen ari da GFA
- 9.- Irisgarritasun plana
- 10.- Mendaroko dendari elkarteak sortu da herriko merkataritza indartzeko
- 11.- Harrera Plana
- 12.- Ibilbide osasungarrien sarea diseinatzen
- 13.- Euskarazko zinema Mendarora kultura eta hizkuntza eskutik
- 14-15.- Laburrak
- 16.- Elkarrizketa: Iñaki Goitia, udal liburuzaina



Lan eta lan

Enetz Ezenarro Arriola
Alkatea - Alcalde



Urteko lehen udal aldizkaria duzue esku artean; argitalpen honek gure udalerriaren gaurkotasuna, proiektuak eta aurrerapenak zuekin partekatzen jarraitzeko aukera ematen digu.

Legegintzaldi honen azken etapan gaude jada; une honetan garrantzitsua da balantzea egitea, baina baita azken egunera arte intentsitatez lanean jarraitzea ere.

Aldizkari honetan islatzen den bezala, bereziki Mendarorentzat lehentasunezko zat jotzen ditugun jardueretan ari gara eragiten, hala nola, Azpilgoetako autobus-geltokiko segurtasuna hobetzea, Santana trenbide-pasaguneko esku-hartzea edo jubilatuen etxearen eta tabernaren berritzea. Jarduera horietako asko urteak zeramatzaten zain, eta uste dugu lehenago jorratu beharko zirela. Edonola ere, udal-gobernu talde honek beste alde batera ez begiratzea eta herritarren benetako behar horiei erantzuteko lanean hasia erabaki du.

Ildo berean, 2026ko aurrekontuen onarpena ere nabarmendu nahi dugu, 4,48 milioi euro inguruko aurrekontuak, inbertsio estrategikoetan azpimarra jartzen dutenak. Kontu horien helburua da udalerriko azpiegiturak hobetzea, zerbitzu publikoak indartzea eta energia-eredu jasangarriago baterantz aurrera egitea.

Inbertsioen atala da ardatz nagusietako bat, 1,3 milioi eurotik gorakoa, eta horrek aukera emango du herritarren eguneroko bizitzan eragin handiko proiektuak bultzatzeko.

Arduraz, hurbiltasunez eta konpromisoz lanean jarraituko dugu, Mendaroko pertsona guztien bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin.

Trabajando sin descanso


Tenéis en vuestras manos la primera revista municipal de este año, una publicación que nos permite seguir compartiendo con vosotros y vosotras la actualidad, los proyectos y los avances de nuestro municipio.

Nos encontramos ya en la última etapa de esta legislatura, un momento en el que es importante hacer balance, pero también seguir trabajando con intensidad hasta el último día. Tal y como se refleja en esta revista, estamos incidiendo especialmente en actuaciones que consideramos prioritarias para Mendaro, como la mejora de la seguridad en la parada de autobús de Azpilgoeta, la intervención en el paso del tren de Santa Ana o la renovación del hogar y del bar del jubilado. Son actuaciones que, en muchos casos, llevan años pendientes y que entendemos que debían haberse abordado con anterioridad. En cualquier caso, este equipo de gobierno ha decidido no mirar hacia otro lado y ponerse manos a la obra para dar respuesta a estas necesidades reales de la ciudadanía.

En esta misma línea de trabajo, queremos destacar también la aprobación de los presupuestos de 2026, unos presupuestos de alrededor de 4,48 millones de euros que ponen el acento en las inversiones estratégicas. Estas cuentas tienen como objetivo mejorar las infraestructuras del municipio, reforzar los servicios públicos y avanzar hacia un modelo energético más sostenible.

Uno de los ejes principales es el capítulo de inversiones, que supera los 1,3 millones de euros y que permitirá impulsar proyectos de gran impacto en la vida cotidiana de la ciudadanía.

Seguiremos trabajando con responsabilidad, cercanía y compromiso, con el objetivo de mejorar la calidad de vida de todas las personas de Mendaro.



Azpilgoetako autobus geltokiaren segurtasuna hobetzeko urrats erabakigarria

Mendaroko Udalak urteak daramatza Azpilgoeta auzoko autobus geltokiaren egoeraz kezkatuta, eta behin eta berriro azpimarratu izan du bertako erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko premia. Gaur egun, geltokiak dituen gabeziek arrisku egoerak sortzen dituzte, batez ere oinezkoentzat, autobusa errepidean bertan gelditzen delako eta itxaroteko espazio egokirik ez dagoelako.

Testuinguru honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak geltokia egokitzeko lanak egingo dituela baieztatu da, udalaren aspaldiko eskaerari erantzunez. Proiektuaren helburua argia da: erabiltzaileen segurtasuna hobetzea eta geltokiaren irisgarritasuna bermatzea.

Aurreikusitako lanen artean daude trafikoa moteltzeko neurriak ezartzea, oinezkoentzako pasabideak egokitzea eta geralekuaren egitura bera hobetzea, erabiltzaileek baldintza seguruagoetan itxaron ahal izan dezaten.

Mendaroko alkateak, Enetz Ezenarro, azpimarratu duenez, “udalaren lehentasun nagusietako bat herritarren segurtasuna da, eta kasu honetan are gehiago, egunerokoan garraio publikoa erabiltzen duten pertsonena. Urteak daramatzagu egoera hau salatzen eta konponbide bat eskatzen, eta pozik gaude azkenean pauso erabakigarri hau emango delako”. Halaber, alkateak nabarmendu du elkarlan instituzionalaren garrantzia: “Udaletik behin eta berriro eskatu dugu esku-hartzea, eta Aldundiarekin izandako lankidetzari esker lortu dugu proiektu hau aurrera ateratzea. Honek erakusten du administrazioen arteko elkarlana funtsezkoa dela herritarren ongizatea bermatzeko”.

Lan hauek gauzatuta, Azpilgoetako autobus geltokia egungo arrisku egoeratik urrundu eta herritarrek behar duten segurtasun mailara hurbilduko da. Mendaroko Udalak, bere aldetik, lanean jarraituko du herriko azpiegiturak hobetzen eta herritarren bizi kalitatea bermatzen.

Mejoras en la seguridad de la parada de autobús de Azpilgoeta

El Ayuntamiento de Mendara lleva años denunciando la falta de seguridad en la parada de autobús de Azpilgoeta, donde las actuales condiciones generan riesgos, especialmente para peatones. Ante esta situación, la Diputación de Gipuzkoa ha confirmado la ejecución de obras para mejorar la seguridad y la accesibilidad del lugar.

Las actuaciones incluirán medidas para reducir la velocidad del tráfico, adecuar pasos peatonales y mejorar la propia estructura de la parada. El alcalde, Enetz Ezenarro, ha destacado la importancia de esta intervención y ha subrayado que es fruto de la colaboración institucional, con el objetivo de garantizar la seguridad y el bienestar de la ciudadanía.



Etxebizitza-bulego ibiltaria izango da Mendaron hileko azken ostegunetan

Debabarreneko udalekin elkarlanean, eskualdeko etxebizitza-bulego ibiltaria martxan jarri du Debegeak, herritarrei etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen inguruko informazioa, orientazioa eta laguntza emateko helburuarekin.

Mendaroren kasuan, zerbitzua hileko azken ostegunetan eskainiko da, 08:15etik 12:15era, Herriko Enparantza 10, behea helbidean. Arreta pertsonalizatua bermatzeko, alde zuzenetik hitzordua hartzea ezinbestekoa izango da: 675873853 / etxebizitza@debegea.eus

Ekimen honen bidez, etxebizitzarekin lotutako hainbat arlotan herritarrei laguntza zuzena ematea da helburua, bai informazio mailan bai izapideetan ere. Udalaren esanetan, zerbitzu honek etxebizitza arloko baliabideak herritarrengana gerturatzea eta dauden laguntzak modu argiagoan ezagutaraztea du xede.

Halaber, alkateak nabarmendu du bulego ibiltariak herritarren gertutasuna indartzen duela: “zerbitzua herrira ekartzeak erraztu egiten du informazioa eskuratzea eta izapideak egitea, eta horrek zuzenean eragiten du herritarren ongizatean”.

Bulegoak etxebizitza hutsten alokairua sustatzeko programen inguruko informazioa eskainiko du, Eusko Jaurlaritzak eta udalek dituzten ekimenak ezagutaraziz, bai jabeei, bai balizko errentariei zuzenduta.

Energiaren arloak ere leku berezia izango du zerbitzu honetan. Herritarrek gizarte-bonu elektriko eta termikoari buruzko aholkularitza jasoko dute, baita energia-fakturen eta tarifaren optimizazioari buruzkoa ere, gastu energetikoa murrizteko eta fakturen ulermena errazteko helburuarekin.

Azkenik, energia berriztagarrien erabilera eta birgaitze jasangarriko jarduerak ere sustatuko dira, etxebizitza-eredu eraginkorrago eta ingurumenarekiko jasangarriago baten aldeko sentsibilizazioa bultzatuz.

Mendaro contará con una oficina de vivienda itinerante el último jueves de cada mes

En colaboración con los ayuntamientos de Debabarrena, Debegea ha puesto en marcha una oficina itinerante para ofrecer a la ciudadanía información, orientación y apoyo en materia de vivienda y rehabilitación de edificios. En Mendaro, el servicio se prestará el último jueves de cada mes, en horario de 08:15 a 12:15, con cita previa obligatoria (675873853/etxebizitza@debegea.eus)..

El objetivo de esta iniciativa es acercar los recursos y ayudas disponibles a la ciudadanía, facilitando tanto el acceso a información como la realización de trámites relacionados con la vivienda. El servicio ofrecerá asesoramiento sobre programas de alquiler de viviendas vacías, ayudas impulsadas por las administraciones públicas, así como orientación tanto para personas propietarias como para posibles inquilinos.

Los presupuestos de 2026 ponen el acento en las inversiones estratégicas

El Ayuntamiento de Mendaro ha aprobado el presupuesto de 2026, de alrededor de 4,48 millones de euros, poniendo especial atención en las inversiones estratégicas con el objetivo de mejorar las infraestructuras del municipio, los servicios públicos y avanzar hacia un modelo energético más sostenible.

Uno de los ejes principales del presupuesto es el capítulo de inversiones, que supera los 1,3 millones de euros e incluye varios proyectos significativos que tendrán un impacto directo en la vida cotidiana de la ciudadanía.

Reforma del hogar y del bar del jubilado

Una de las principales inversiones será la renovación integral del hogar y del bar del jubilado, con un presupuesto cercano a los 800.000 euros. A través de este proyecto se pretende mejorar la comodidad, la accesibilidad y la funcionalidad del espacio, reforzando así un importante punto de encuentro social para la gente del municipio.

El objetivo del Ayuntamiento es dar al edificio un uso actualizado, modernizando el servicio y convirtiéndolo en un espacio de referencia para la vida comunitaria.

Renovación del alumbrado público: hacia la eficiencia energética

Otra inversión destacada es la renovación del alumbrado público mediante el paso a tecnología LED. Con una inversión superior a los 500.000 euros, el Ayuntamiento busca reducir el consumo energético, disminuir los costes y mejorar la calidad de la iluminación en el municipio.

Esta medida sitúa a Mendaro en la senda de la transición energética, impulsando un modelo más sostenible con el medio ambiente y reduciendo la huella de carbono.

Mejora de infraestructuras y servicios municipales

El presupuesto también contempla una partida para la mejora general de infraestructuras y servicios del municipio. Dentro de este apartado se prevén trabajos de mantenimiento de espacios municipales, mejoras en la accesibilidad y adecuación de espacios públicos.

El objetivo es crear espacios más seguros, accesibles y funcionales para el uso cotidiano de la ciudadanía.

La visión del Ayuntamiento: hacia un modelo de municipio de futuro

Según el alcalde, Enez Ezenarro, el presupuesto de 2026 está elaborado “con realismo pero con visión de futuro”, y ha destacado que las inversiones responden a las principales necesidades de Mendaro.

Asimismo, el alcalde ha subrayado que estas líneas estratégicas permitirán mejorar el bienestar de la población, señalando que este tipo de mejoras “son realmente merecidas por la ciudadanía”, ya que repercuten directamente en la calidad de vida diaria del municipio.

“Nuestro objetivo no es solo mantener los servicios cotidianos, sino también modernizar el municipio, reforzar la cohesión social y dar respuesta a la transición energética y social”, ha afirmado.

Conclusión

El presupuesto de 2026 marca la dirección futura de Mendaro, apostando por construir un municipio más moderno, sostenible y socialmente cohesionado a través de inversiones estratégicas.



Mendarok 2026an inbertsio estrategikoen aldeko apustua egin du

Mendaroko Udalak 2026ko aurrekontua onartu du, 4,48 milioi euro ingurukoa, eta inbertsio estrategikoetan jarri du arreta. Inbertsio nagusien artean daude jubilatuen egoitzaren eta tabernaren eraberritzea eta argiteria publikoa LED teknologiarara egokitzea, energia aurrezteko eta jasangarritasuna hobetzeko.

Halaber, udal azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzeko lanak egingo dira, espazio publikoak seguruago eta irisgarriago bihurtzeko. Udalaren helburua da herria modernizatzea, ongizatea handitzea eta etorkizun jasangarriago baterantz aurrera egitea.



Santa Anako trenbide-pasaguneari soinu eta argi bidezko sistema automatikoa ezarriko zaio

Mendaroko Udalak Euskal Trenbide Sarearekin (ETS) azken bi urteetan egindako kudeaketei esker, Santa Anako trenbide-pasagunearen segurtasuna hobetzeko neurri garrantzitsuak hartuko dira aurten bertan. ETSren aurreikuspenak beteko balira, irailerako lanak amaituta egongo lirateke.

Gune horretan ikuspegia oso mugatua da bihurgunearen ondorioz, eta Santa Anako ermitaren eta aisialdi gunearen hurbiltasunagatik, batetik, eta inguruko baserrietako joan-etorriengatik, bestetik, oinezko eta ibilgailuentzako leku arriskutsu izan da betidanik. Udan gainera trenen maiztasuna bikoiztu egiten da eta Santa Ana egunean, bereziki, kontu handiz ibili behar izan ohi dute herritarrek, trenen joan-etorriek mendaroen jaiegun nagusia hondatu ez dezaten.

Udalaren eskaerari erantzunez ETSk puntu horretako arriskuaren balorazio bat egin zuen lehendabizi eta ebaluazio horren ondoren pasagune hori A2 klaseko bidegurutze gisa katalogatu da eta klase horretako trenbide pasabidei ezartzen zaizkien babes neurriak ezarriko zaizkio, beraz, Santa Anakoari ere. Seinale finkoak jarriko dira, alde batetik, eta argi eta soinu bidezko seinaleak, bestetik, oinezko zein gidariei trena hurbiltzen ari dela ohartarazteko.

Enez Ezenarro alkateak azpimarratu duenez, "pauso garrantzitsua da mendaroen segurtasuna bermatzeko, eta lanean jarraituko dugu herrian dauzkagun beste puntu arriskutsu batzuetako babesa hobetzeko horretarako beharrezkoak diren erakundeekin lankidetzan".

Señales acústicas y luminosas para el paso a nivel de Santa Ana

Euskal Trenbide Sarea (ETS), implantará este año un sistema automático de señalización luminosa y acústica en el paso a nivel de Santa Ana para mejorar su seguridad, con previsión de finalizar las obras en septiembre.

Este punto ha sido históricamente peligroso debido a la escasa visibilidad por una curva, la cercanía de la ermita y una zona de ocio, y el tránsito frecuente de peatones y vehículos. El riesgo aumenta en verano por el incremento de trenes y especialmente durante el día de Santa Ana.

Tras evaluar la situación, y a petición del ayuntamiento, ETS ha clasificado el paso como de tipo A2, lo que implica la instalación de señalización fija y avisos luminosos y sonoros para advertir de la llegada de trenes.

El alcalde ha destacado que se trata de un avance importante para la seguridad y ha señalado la intención de seguir mejorando otros puntos peligrosos del municipio.



Hezkuntza berritzailea Mendaron: eskola baratzea eta filosofia umeentzat Hezkuntza Foroan

Hezkuntza komunitatea indartzea eta ikaskuntza berritzaileak sustatzea helburu duten ekimenen barruan, Mendaroko Udala-k Hezkuntza Foroa jarri du martxan, herriko eskolarekin, guraso elkartarekin eta herriko beste eragile batzuekin elkarlanean. Foro horren baitan, bi ardatz nagusi aukeratu dira ikasturte honetan martxan jartzeko: eskola baratzea eta filosofia umeentzat.

Eskola baratzea egitasmoak natura eta hezkuntza uztartzen ditu, hurrek esperientzia zuzenez ikas dezaten. Baratzean lan eginez, ikasleek landareen hazkundea, ingurumenarekiko errespetua eta elikadura osasuntsuaren garrantzia ezagutzen dituzte. Aldi berean, talde-lana, ardura eta autonomia bezalako balioak lantzeko aukera eskaintzen du, ikasgelatik kanpoko ikaskuntza esperientzuala indartuz.

Bestalde, filosofia umeentzat programak pentsamendu kritikoa eta elkarriketa sustatzen ditu. Saio hauetan hurrek galderak egiten ikasten dute, euren iritziak adierazten eta besteena entzuten. Ez da erantzun zuzenak bilatzea helburu nagusia, baizik eta pentsatzeko gaitasuna garatzea eta arrazoibideak eraikitzea. Horrela, hurrek autonomia intelektuala eta komunikazio gaitasunak lantzen dituzte.

Hezkuntza Foroa, berez, ez da ekimen isolatua, baizik eta OinHerri herri hezitzaileen sareak bideratutako udala, eskola, guraso elkarte eta herriko beste eragile batzuen arteko elkarlanerako espazio parte-hartzailea. Bertan, hezkuntza eredu inklusiboago eta osatuago baten aldeko proposamenak lantzen dira, herriko hezkuntza komunitatea indartzeko asmoz.

Ekimen hauen bidez, Mendarok hezkuntza ikuspegi zabalago baten aldeko apustua egiten du: ezagutza akademikoaz harago, haurren garapen emozionala, soziala eta kritikoa ere kontuan hartzen dituena. Horrek guztiak herriaren etorkizunari begira oinarri sendoagoa eraikitzen laguntzen du.

Badira bi urte Mendaro OinHerri herri hezitzaileen sarean integratu zela. Harrezkero ekimen desberdinak burutu dira Mendaron OinHerriren laguntzarekin: Kaleak Denonak espazio publikoen berrantolaketan ume eta gaztetxoek partehartzea txertatzea izan zen lehenbizikoa eta Mendaroko Hezkuntza Foroa martxan jartzea izan da bigarrena.





Altzola eta Mendaro arteko bidegorri zatia diseinatzeko ari da Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia Altzola eta Mendaro arteko 1,7 kilometroko bidegorri zatia diseinatzeko ari da, eskualdeko mugikortasun jasangarria eta oinezko zein txirrindularien segurtasuna hobetzeko helburuarekin.

Aldundiaren arabera, ibilbideak 1,7 kilometro inguruko luzera eta hiru metroko zabalera izango ditu, eta nagusiki N-634 errepidearen eta AP-8 autobidearen artean kokatuko da. Helburua oinezkoentzat zein bizikletaz ibiltzen direnentzat ibilbide eroso eta segurua eskaintzea da, bi herrien arteko lotura hobetuz.

Diputazioak azpimarratu du egitasmo hau Gipuzkoako bidegorri sarea sendotzeko estrategiaren barruan kokatzen dela, herriak modu jasangarrian konektatuz eta eguneroko joan-etorri osasungarriagoak sustatuz. Era berean, Mendaro eta Elgoibarko udalekin elkarlana funtsezkotzat jo du proiektuaren garapenerako.

Mendaroko Udalak balorazio positiboa egin du proiektuaren inguruan, eta herritarren aspaldiko eskaera bati erantzuten diola nabarmendu du. Alkatearen hitzetan, "aspaldiko herritarren eskakizuna da bi herriak modu segurua eta jasangarrian lotuko dituen bidegorri bat izatea, eta gaur egun bizi dugun trantsizio ekologikoaren testuinguruan horrelako azpiegiturek garrantzi berezia dute".

Datozen hilabeteetan, proiektuaren dokumentazio teknikoa osatzen jarraituko da, trazaduraren behin betiko definizioa eta eraikuntza aukerak zehazteko.



Avanza el proyecto de bidegorri entre Mendaro y Elgoibar para mejorar la movilidad sostenible

El trazado inicial prevé un recorrido de aproximadamente 1,7 kilómetros y tres metros de anchura, situado principalmente entre la carretera N-634 y la autopista AP-8.

El objetivo es ofrecer un itinerario seguro y cómodo tanto para peatones como para personas usuarias de bicicleta, mejorando la conexión entre ambas localidades. Este proyecto se enmarca en la estrategia foral de ampliar la red de vías ciclistas en Gipuzkoa y fomentar desplazamientos más sostenibles y saludables.

El Ayuntamiento de Mendaro ha valorado positivamente la iniciativa, destacando que responde a una demanda histórica de la ciudadanía y subrayando la importancia de este tipo de infraestructuras en el contexto actual de transición ecológica. En los próximos meses se continuará trabajando en la definición técnica del proyecto.



Mendarok Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integrala (IUPI) onartu du datozen lau urteetarako

Mendaroko Udalak Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integrala (IUPI) idatzi eta onartu du, datozen lau urteetan herria irisgarriagoa, inklusiboagoa eta bizigarriagoa bihurtzeko egingo diren esku-hartzeak zehaztuz. Plan hau udalaren estrategia orokorraren barruan kokatzen da, pertsona guztien autonomia, berdintasuna eta parte-hartzea bermatzeko helburuarekin.

IUPI plana Mendaroko Udalaren izeneko parte-hartze prozesuaren baitan garatu da, Proiektu Urbes enpresako arkitektoen laguntza teknikoarekin. Prozesuan zehar, herritarren ekarpenak jasotzea funtsezkoa izan da: horretarako, parte-hartze saio irekiak eta galdetegiak antolatu ditu Udalak, herritarren beharrak eta lehentasunak zuzenean ezagutzeko.

Jasotako ekarpenak lau ardatz nagusitan antolatu dira. Batetik, kaleak eta espazio publikoak aztertu dira, oinezkoen segurtasuna, irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko neurriak proposatuz. Bestetik, eraikin publikoen egoera aztertu da, guztientzako sarbidea bermatzeko.

Hirugarren ardatzak garraioa eta udal informazioa hartzen ditu barne, irisgarritasun fisikoaz gain, irisgarritasun kognitiboa ere kontuan hartuz, informazioa ulergarria eta eskuragarria izan dadin pertsona guztientzat. Azkenik, udal zerbitzu eta izapideetan ere hobekuntzak planteatzen dira, prozesuak erraztu eta herritar guztientzat erabilgarriagoak izan daitezkeen.

Planak ez ditu soilik ekintza zehatzak jasotzen, baizik eta datozen urteetarako ibilbide-orri bat ere ezartzen du, esku-hartzeak modu planifikatuan eta progresiboan gauzatzeko, lehentasunak zehaztuz.

Planaren idazketarako, Mendaroko Udalak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren laguntza jaso du. Guztira 12.631 euroko dirulaguntza eskuratu du, proiektuaren kostuaren %85 estaltzen duena.

Ekimen honekin, Mendarok aurrerapauso sendoa eman du irisgarritasun unibertsalaren alde, ulertuta irisgarritasuna ez dela soilik oztopo fisikoak kentzea, baizik eta pertsona guztien aukera-berdintasuna, autonomia eta herriko bizitzan parte hartzeko aukera bermatzea.



Mendaroko dendari elkarteak sortu da herriko merkataritza indartzeko

Mendaron dendari elkarte berria eratu zen 2025 urte amaieran, herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu txikien arteko lankidetzak eta dinamizazioa sustatzeko helburuarekin. Ekimenak Udalaren babesa jaso du eta sektoreko hainbat eragileren parte-hartzearekin gauzatu da.

Elkartearen sorrera Mendaroko herri-bizitzarako estrategikoa den sektore bati bultzada emateko helburuz egin da. Herriko merkataritza ez da soilik zerbitzu ekonomiko bat; eguneroko harremanak, gertutasuna eta herriaren kohesio soziala bermatzen dituen egitura ere bada.

Herriko dendek eta ostalaritzak funtzio sozial garrantzitsua betetzen dute: adineko pertsonen gertuko arreta eskaintzen diete, herriko kaleei bizitasuna ematen diete eta eguneroko bizitza komunitarioa sostengatzen dute. Horregatik, sektore honen ahultzeak edo desagertzea ondorio zuzena izango luke herriaren eguneroko dinamikan.

Merkataritza txikirik gabeko Mendaro batek arrisku nabarmenak izango lituzke: kaleetako bizitasuna murriztea, herritarren arteko harremanak ahultzea, zerbitzuen eskuragarritasuna zailtzea eta, oro har, herri-identitatearen galera progresiboa. Gainera, kontsumoaren kanporatzeak (beste herrietara joatea erostera) tokiko ekonomia ahulduko luke eta enplegu-aukeretan ere eragina izango luke.

Testuinguru horretan, dendari elkartearen sorrera pauso garrantzitsua da herriko merkataritza sarea indartzeko eta etorkizun iraunkorragoa bermatzeko.

Mendaroko Udalak positiboki baloratu du egitasmoa. Enetz

Ezenarro alkatearen hitzetan, "herriko merkataritza txikia zaintzea eta indartzea funtsezkoa da Mendaroren etorkizunerako. Merkataritzarik gabeko herri batek ez luke gaur egun ezagutzen dugun bizitasun sozial eta komunitarioa izango".

Halaber, alkateak azpimarratu du Udalaren konpromisoa: "Udaletik prest gaude elkarlanean jarraitzeko, herriko merkataritza sareak bizirik jarrai dezan eta herritarrei gertuko eta kalitatezko zerbitzua eskaintzen jarraitzeko".

Elkarte berriak dagoeneko lehen lan-ildoak zehaztu ditu, besteak beste, herriko dinamizazio ekimenak, kanpaina komertzial bateratuak eta sektorearen beharrak identifikatzeko bilera jarraituak. Parte-hartzaileek nabarmendu dute helburua ez dela soilik ekonomikoa, baizik eta herri-bizitza aktiboa eta komunitarioa indartzea.

Udalak Dendartearekin, Gipuzkoako merkataritza elkarten asoziazioarekin, hasitako lankidetzaren baitan kokatzen da ekimen hau. Udalak eskatuta, Dendartearekin merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen egoeraren diagnostikoa burutu zuen 2025ean zehar eta azterketa horretan atzemandako gabeziei erantzuteko neurriak zehaztea da hurrengo pausua. Mendaroko dendari, ostalari eta zerbitzuen elkarteak sortzea izan da hartutako lehen neurria.



Udalak Mendarora bizitzera datozen herritarrentzako Harrera Protokoloa osatu du

2025ean zehar garatutako prozesuaren ondoren, Mendarok jada badu herrira bizitzera etorritako pertsonen harrera egiteko protokolo bat. Protokoloaren helburua etorri berrien integrazioa erraztea eta aniztasuna balioan jarritz komunitatea kohesionatzea da.

Mendaroko Udalak, Emun aholkularitzaren laguntzarekin, Harrera Protokoloa diseinatu eta martxan jarri zuen 2025ean zehar. Bi fasetan garatu zen proiektua.

Lehen fasean (harrera instituzionala) udal langileak formatzeko saioak egin ziren; herrian dauden zerbitzu guztien gida eleanitz bat sortu zen (euskaraz, gaztelera, frantsesez eta ingelesez); eta lehen ongi etorri saio instituzionala egin zen ekainean. Bigarren fasean (harrera integrala) herriko eragile eta norbanakoen ekarpenak jaso ziren udazkenean zehar eta abenduan bigarren harrera saioa egin zen, kasu honetan eragileek ere parte hartu zutelarik. Prozesuan zehar jasotako informazioarekin osatuta geratu zen protokoloa urte amaieran.

Orain, udalak urtean bi harrera saio egiteko asmoa du, protokolo horretan oinarrituta. Horrela, herrira iritsi berriak diren pertsonen Mendaro ezagutzen, eguneroko bizimodurako baliabideak eskuratzen eta komunitatearekin lehen harremanak sortzen lagundu nahi zaie.

Enez Ezenarro alkatearen hitzetan "pertsona guztiek, jatorria edozein dela ere, komunitatearen parte sentitzea da gure helburua", diote udal iturriek.

Kultura aniztasuna, hizkuntza, genero berdintasuna eta zerbitzuetarako irisgarritasuna ardatz hartuta, Mendarok elkarlanean oinarritutako komunitate kohesionatua eta solidarioa sustatu nahi du.

Mendaro impulsa un protocolo de acogida para facilitar la integración de las personas recién llegadas

El Ayuntamiento de Mendaro ha elaborado en 2025 un Protocolo de Acogida para facilitar la integración de las personas que llegan a vivir al municipio y fomentar una comunidad cohesionada basada en la diversidad. El proyecto se desarrolló en dos fases: una primera centrada en la acogida institucional, con formación al personal municipal, la creación de una guía multilingüe de servicios y una sesión de bienvenida; y una segunda fase de acogida integral, en la que participaron agentes locales y ciudadanía, culminando con una segunda sesión y la definición final del protocolo.

A partir de ahora, el Ayuntamiento prevé organizar dos sesiones de acogida al año para ayudar a las nuevas personas residentes a conocer el municipio, acceder a recursos y establecer vínculos con la comunidad. El objetivo es que todas las personas, independientemente de su origen, se sientan parte de Mendaro, promoviendo valores como la diversidad cultural, la igualdad de género y la accesibilidad.



Elkarlanean ibilbide osasungarrien sarea diseinatzen

Mendaro herri atsegina da, baina azken urteotan gero eta nabarmenagoa da espazio publikoaren eta mugikortasunaren inguruko hausnarketa. Testuinguru horretan kokatzen da Udalak bultzatutako herriko ibilbide osasungarrien sarea: herria oinez bizitzeko proiektua.

Mendaroarren jarduera fisikoari lotuta dauzkaten ohitura eta beharren azterketa bat egin zuen udalak 2022an. Azterketa horrek erakutsi zuen, helduen artean, oinez ibiltzea, korrika egitea edo mendira joatea zela ariketa fisikoa egiteko modurik ohikoena.

Bestetik, 2024an osasunaren eta inklusioaren ikuspegitik Mendaroko espazio publikoen parte hartze bidezko berrantolaketa plan bat egin zuen udalak. Besteak beste, bizimodu aktiboa eta osasungarria sustatzera bideratutako oinezko ibilbideak sortzea aipatzen da bertan.

Bi abiapuntu horiek uztartuta udala estrategia berri bat lantzen ari da bizimodu aktiboa eta osasungarria sustatzeko. Horretarako, herrigunean zehar ibiltzeko ibilbide sare bat diseinatzen ari gara, auzo ezberdinetatik abiatuz, Aranerreka eta industriaguneak barne hartuko dituen.

Enetz Ezenarro alkatearen arabera helburua ez da soilik jarduera fisikoa bultzatzea, horrez gain pertsonen arteko topaketa erraztea ere bilatzen da. "Ibiltzea jarduera simple bezain osasungarria da, baina konpainian eginez gero, are aberasgarriagoa dela badakigu. Gainera, jarduera inklusiboa da: zapatilak jantzi eta ia edonork egin baitezake, bakoitzak bere erritmora eta gaitasunera egokituta".

Herritarren eta herriko eragileen parte-hartzea bilatuz ari da prozesua garatzen urtea amaitu aurretik oinezko ibilbide sarea martxan egon dadin.



Zinema Euskaraz zikloa abiatu dute Arno guraso elkarteak eta udalak

Euskarazko kultur eskaintza indartzea helburu duten ekimenen artean, Arno Guraso elkartearen eta Udalaren artean antolatutako Zinema euskaraz egitasmoa nabarmendu behar da. Urtarrileko eta otsaileko asteburuetan jarri da martxan lehen aldiz egitasmo hau eta haur eta gurasoei, neguko asteburuetan, sozializatzeko eta euskararen erabilera indartzeko, kalitatezko materiale bat eskaintzea du xede.

Ezaguna da euskararen normalizazioari dagokionean belaunaldi berrien euskararen ezagutzak eta euskararekiko duten atxikimenduak duen garrantzia. Euskaraz jakitea ezinbestekoa izanik, ez da nahikoa inondik inora. Gaur egungo testuinguruan medioek, internetek edo sare sozialek izugarritzko eragina daukate gu guztiongan, eta zer esanik ez belaunaldi gazteenen artean. Bitarteko horietatik hizkuntza handietan momentuoro jasotzen dugun estimulo eta edukien bolumena hain da neurtezina, fenomeno horren aurrean, euskal mundua erabateko ahultasunean aurkitzen dela.

Mendaroko Udalak beste erakundeekin elkarlanean euskararen normalizazioaren alde lan egiten du. Enetz Ezenarro alkatearen hitzetan euskara gure eguneroko bizitzetako edozein esparrutan normaltasun osoz erabili ahal izateko eskubidearen alde lan egiten ari dira. “Esan



bezala, bizi dugun testuinguruan, euskal herritarren artean euskararen ezagutzaz gain euskararekiko atxikimendua garatzea ezinbestekoa da euskarak biziraungo badu” dio Ezenarrok.

Hausnarketa horretatik abiatuta euskararen ezagutza eta euskararekiko atxikimendua bultzatzeko ekintza zehatzak garatu nahi dira. Euskari prestigioa emateko, bizitzako alor guztietarako garrantzitsua dela erakutsi behar du. Baita aisialdirako ere.

Hau guztia kontuan hartuta, haurren aisialdia eta euskara lotzeko egitasmoa da Arno Guraso elkarte eta Udalaren artean aurtan martxan jarri den Zinema Euskaraz zikloa. Bereziki haurrei eta hauen gurasoei (baina ez soilik) zuzendutako kalitatezko euskarazko filmak eskaini dira. San Agustín antzokian, haurrek eta gurasoek euskaraz sozializatzeko akuilu gisa.

Urtarrilean hasi eta otsailean zehar igande arratsaldetan garatu den zikloan 5 film eskaini dira doan. Lehenbizikoa Barrakudaren altxorra, urtarrilaren 25ean; bigarrena, otsailaren 1ean, ETBko Irabazi arte! gaztetxoentzako seriearen aurtengo denboraldiko lehen kapituloaren primizia; hirugarrena, otsailaren 8an, Hartz-atzapar kanpamentua; laugarrena, otsailaren 15ean, Lagunak, erreskatera!; eta azkena, otsailaren 22an, Minecraft.

Hurrengo neguan ekimenari jarraipena emateko asmoa du Udalak.



V. Txirristaka saria martxan

Mendaroko Inleike Elkarateak eta Udalak elkarlanean, bertsolaritza eta bertso jarrien idazketa sustatzeko helburuarekin, V. Txirristaka Saria bertsopaper lehiaketa antolatu dute. Maiatzaren 22ra arte aurkeztu ahal izango dira lanak. Lehiaketaren oinarriak udaleko web orrian.

Kalea kolorez betetzeko saioa

Josi ta Josi jostun taldeak Santa Ana jaietarako harizko banderinak egiteko deialdia egin zuen kaleak kolorez betetzeko helburuarekin. Interesatuok jarri harremanetan In Leikerekin.



Criteria para la gestión y transformación del arbolado urbano de Mendaro

El Ayuntamiento ha solicitado a una empresa especializada, un estudio que sirva para marcar los criterios para gestionar y transformar la arboleda urbana de Mendaro, según los criterios de los estándares europeos de Urban Forest, donde el arbolado pasa de ser un mero ornamento a tener unos objetivos claros como herramienta de mejora de la calidad de vida de la ciudadanía.

Herri baratzeen proiektua aurrera

Mendaroko Udala herri-baratze parke bat sortzeko aukera aztertzen dabil. Galdetegi digital bat zabaldu zuen otsailean herritarren artean proiektuan interesik dagoen jakiteko eta 40 lagunetik gora izan ziren interesa agertu zutenak. Proiektuarekin aurrera jarraituko du udalak.



Cuidando lo local

Entre marzo y abril se ha desarrollado con éxito la campaña de bonos "Vive en Mendaro, compra en Mendaro", dirigida a apoyar el comercio minorista del municipio. Estos bonos permiten a las personas consumidoras ahorrar 10 euros al realizar una compra de 30 euros en los establecimientos participantes. En total, han participado 12 comercios.



Últimos días para inscribirse en los udalekus de verano

El plazo de inscripción para las udalekus de verano estará abierto hasta el 4 de mayo. La inscripción debe realizarse de forma online a través de la página web municipal.

Se ofrecerán dos turnos: del 22 de junio al 3 de julio y del 6 al 17 de julio, pudiendo inscribirse también en ambos. Están dirigidas a niñas y niños desde HH3 hasta 6º de Primaria y las plazas son limitadas. Más información disponible en la web del Ayuntamiento.





Santa Ana jaiak atontzen

Santa Ana jaietarako herri jai batzordeak hainbat bilera egin ditu aurtengo Santa Ana jaiak antolatzeko. Azkena apirilaren 15ean. Jaietako programa lotzeko lanak oso aurreratuta daude dagoeneko.



Maiatzaren 29ra arteko epea Santa Ana jaietarako kartela aurkezteko

Zabalduta da Santa Ana 2026 Kartel Lehiaketan parte hartzeko epea. Maiatzaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dira kartelak. Oinarriak udaleko web orrian.

Martxoak 8 indartsua

Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatutako ekintzek herritarrengandik erantzun positiboa izan zuten beste urte batez.



Udal brigada indartzen

Mendaroko Udalak 2025eko udan martxan jarritako zerbitzu anitzeko laguntzailerako bi lanpostu betetzeko lehiaketa amaitzear dago. Udal brigadako langileen egoera egonkortzeak kaleko azpiegituren mantenimendu zerbitzua indartzeko balioko du.



Euskararen erabilera indartu nahian

Mendaroko Udalak herriko euskararen erabilera sustatzeko plan bat egiten dihardu UEMArekin batera. Galdetegi labur bat jarri zuten martxan otsaila hasieran. Emaizak aurkeztu, hartu beharreko neurriez hitz egin eta ekarpenak jasotzeko saioa egin zen martxo amaieran. Hausnarketan sakontzeko bigarren saio bat egitea aztertzen ari dira orain.



“Kulturak oso rol garrantzitsua izan behar du leku guztietan”

Iñaki Goitia
Udal liburuzaina

Nolakoa da zure lana Mendaroko liburutegian?

Liburuzain lana maite dut. Liburuak ematea, itzultzea, luzatzea, erreserbatzea edo aholkatzea, erabiltzaileei altan ematea, aurrez aurre, birtualki edo telefono bidez arreta ematea, zerrenda egitea eta liburutegiaren funtsa handitzeko eta hobetzeko erosi behar diren liburuak eskatzea, liburuak xahutzea, konpontzea, sareko beste liburutegi batzuei liburuak eskatzea, Eusko Jaurlaritzaren estatistika egitea, egunkariak eta aldizkariak harpidetzea, ipuin-kontaktak eta helduen zein haurren irakurketa-klubak antolatzea... beti dago zer egina.

Zerk bultzatu zintuen mikroipuina idazten hasteko?

Nire lehen idatziak kontakizun laburrak izan ziren, baina mikroipuina baino luzeagoak. Garai hartan ia ez nuen mikroipuinen berririk berezko literatur genero gisa, baina gogoan dut Kafka bezalako egileen testu oso laburrak irakurri nituela, atentzio handia eman zidatenak. Ondoren, Cadena Ser-ko lehiaketaren eta beste lehiaketa batzuen bidez generoan murgiltzen hasi nintzen.

Zer da gehien erakartzen zaituena formatu literario honetan?

Oso genero zorrotza da, bai idazlearentzat, bai irakurlearentzat. Lehenengoak bat etorri behar du mikroipuina genero gisa dituen arau batzuekin: hizkuntzaren ekonomia, laburtasuna, narratibitatea, amaiera harrigarria, elipsia, intertestualitatea,

izenburuaren garrantzia... eta bigarrenak ez ditu besoak gurutzatuta irakurri behar; mikroipuinean garrantzitsuagoa da esaten ez dena esaten dena baino, eta irakurleak iradokitzen denarekin lan egin behar du eta narrazioaren zentzua osatu. Bizi dugun garai azkar honekin bat datorren generoa da.

Zer rol du kulturak Mendaro bezalako herri batean?

Nire ustez, kulturak oso rol garrantzitsua izan behar du leku guztietan, nolabait gizakia definitzen duen dimentsioa baita. Mendaro herri txikia bada ere, kultur jarduera handia du eta jendea asko inplikatzeko da antolatzen diren ekintzetan. Herriak herriarentzat egiten du lan, eta Mendaroko kulturak herri bizia dela erakusten du.

Zer esango zenioke idazten hasi nahi duen bati?

Dena bezala alde onak eta txarrak dituela esango nioke. Lan bakartia da, dedikazioa eskatzen duena, orri zuriaren aurrean ordu asko ematea, sortzen diren ideiak interesgarriak izango diren ziurtasunik izan gabe. Nik bereziki maite dut sortze prozesua eta obra amaituta ikustea. Ezerezetik sortzeak badu magikotik zerbait, eta zaila da azaltzea. Bestalde, pazientzia izateko esango nioke, asko irakurri eta idazteko, eta are gehiago gozatzeko.

Ba al duzu etorkizuneko proiekturik idazketarekin lotuta?

Kontakizun laburra, mikroipuina, saiakera, haikuak, abestien hitzak... idatzi izan ditut, eta kajoian gordeta daukadana argitaratu nahi nuke. Orain arte hainbat liburutan argitaratu dut, beste autore batzuekin batera, literatur lehiaketen bidez. Hurrengo urratsa, nire ustez, mikroipuinen liburu propio bat argitaratzea izango da. Nahiko zorrotza naiz nire mikroipuinekin, eta beti saiatzen naiz horiek hobetzen, baina laster askatu eta irakurleen artean beren bidea egingo dutela pentsatzen dut.